



UPV/EHU

**IKASTEGI, SAIL, JAKINTZA-ARLO ETA
INSTITUTUEN IZENDEGIA**

**NOMENCLÁTOR DE CENTROS,
DEPARTAMENTOS, ÁREAS DE
CONOCIMIENTO E INSTITUTOS**

2004ko otsailaren 3ko Gobernu Kontseiluan onartua
Aprobado en Consejo de Gobierno de 3 de febrero de 2004

ATARIKOA ETA IRIZPIDEAK

1. IZENDEGIAREN HELBURUA ETA MAMIA

Gauza jakina da erakunde batzuetako sail eta atalen euskarazko izenetan ziurtasunik eza eta are bikoiztasunak ere sortu ohi direla: errotulazioan, barne-komunikazioan eta abarretan sarri askotan gertatzen dira gorabeherak eta inkoherentziak. Euskal Herriko Unibertsitatea ere ez da salbuespena izan arlo horri dagokionez: ziurgabetasun eta zalantza ugari izan ohi ditugu erakunde barneko sail, ikastegi eta jakintza-arlo jakin batzuk izendatzeko orduan.

Hain zuzen ere, erakunde-mailako izenak normalizatzeko behar larri horri erantzutera dator oraingo izendegi xume hau. Beraz, terminologia-beharren artean maila apalenetik hasia iruditu zaigu egokiena eta zuhurrena.

Hasi ere, ez gara hutsetik hasi, azken hamarkadetan zabalduko izendegia izan baitugu oinarri. Eta oinarri horren gainean lan egin dugu, inkoherentzia batzuk saihesteko, eztabaidagai izan diren zenbait deitura korapilatsu finkatzeko eta nolabaiteko irizpide-batasuna bilatzeko.

Lehenbiziko lan honetan, UPV/EHUko erakunde batzuen izenak bakarrik finkatu nahi izan ditugu. Honako hauen izenak, hain zuzen ere: ikastegiak (fakultate nahiz unibertsitate-eskolak), sailak, jakintza-arloak eta unibertsitate-institutuak.

Hurrengo ekinaldi baterako geratzen dira, beraz, irakasgaien, atalen, zerbitzuen eta abarren izenak.

Ondo dakigu ez dagoela terminologia-normalizazioa dekretuz eta aginduz gauzatzerik. Horregatik, joan den apirilean hilabeteko epea zabaldu genuen unibertsitate-erkidegoak gure izendegiaren behin-behineko argitalpenari oharrak eta iradokizunak egin ziezazkion. Orain, epe hori igaro ondoren eta jasoriko ohar guztiak aztertu ondoren, behin betikotzat jotzen dugun izendegi honetan erabili ditugun hizkuntza-irizpideen berri ematera gatoz.

Badakigu, jakin, honelako terminologia-lanen eraginkortasuna oso mugatua izan daitekeela; alegia, ondo dakigu izendegi honen balioa UPV/EHUko erabiltzaileen artean izango duen harreraren eta zabalkundearen arabera neurtuko dela. Nolanahi ere, itxaropen osoa dugu izendegi hau, bere txikian, aurrerapauso sendoa izango dela UPV/EHUko erakunde-mailako terminologia-estandarizazioan¹.

¹ Izendegi hau, 2004ko otsailaren 3ko Gobernu Kontseiluan onartu zen.

2. -EN/ -KO AUZIAZ

Kontuan harturik askoren iritzi askotarikoak, baina alde batera utzirik hemen auziaren eztabaida sakon eta zehatza, hona zein bidetatik jo dugun UPV/EHUko fakultate, eskola eta abarren izenei buruzkoan:

2.1 Hitz elkarketak aukerako eta naturala zirudien mugaraino, hura hobetsi da, noski, koordinazioa barne.

(1) *Zuzenbide Fakultatea*

2.2 Ezkerreko osagaia deklinatu behar zela iritzi diogu, batetik, osagai hori izen soila ez zen kasuan:

(2) *Arte Ederren Fakultatea*

(3) *Meatzte Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola*

2.3 Ezkerreko osagaia deklinatzera jo dugu, orobat, eskuineko osagarriak bere baitan elkarketazko ezker-osagaien bat zuenean:

(4) *Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola*

(5) *Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola*

Ez dugu halakotzat hartu, hala ere, *Goi Eskola*, *goi* horren aurrizki-izaera bereziarengatik:

(6) *Arkitektura Goi Eskola Teknikoa*

2.4 Kasu berezi hori alde batera utzirik, bada, ez dugu proposatzen elkarketa hirukoitzik (7, 8, 9). Bi kasutan bakarrik onartu dugu elkarketa hirukoitza, marratxoz (10 eta 11):

(7) a) **Leioako Erizaintza Unibertsitate Eskola* →

b) *Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola*

(8) a) **Arte Eder Fakultatea* →

b) *Arte Ederren Fakultatea*

(9) a) **Lan Harreman Unibertsitate Eskola* →

b) *Lan Harremanen Unibertsitate Eskola*

(10) *Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa*

(11) *Musika-terapia Institutua*

- 2.5 Ezkerreko osagaia genitibo-kasu bietatik zeinetan deklinatu erabakitzeke orduan dira zalantzarik handienak, bai teorikoak eta bai praktikoak ere, hainbat joera ibili baitira lehia gure tradizio txoan halako izenak ipintzeko orduan. Hona nondik nora doan gure bateratze-proposamena:

Honelatsuko parafrasia hartu dugu oinarri semantikotzat, “ikastetxe”tzat jo daitezkeen kasurako (funtsezkoa da, konplementazioa hautatzeko orduan, izen nagusiaren izaera):

(12) X[(AR)EN] arlo[RA]KO ikastetxea

“Arlo/esparru...” horren aipamen esplizitua desagertzen delarik, nolabaiteko lehia sortzen da, horko *-EN* eta *-KO* horietatik zein nagusituko, eta erabaki egin behar.

- 2.5.1 Eredu tipikoan, singularreko izenak alorra generikoki biltzen duen erduan, alegia, NON(GO) kasuaren zentzu zabalera bildu gara, hots, “leku” fisikotik “eremu, alor, esparru...” irudizkora aise hedatzen den horretara:

(13) *Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola*

(14) *Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola*

- 2.5.2 Beste bidetik jo dugu, aukerak aukera, pluralezkoetan (15, 16, 17), ez baita hor beti hain erraz ezkontzen plurala zentzu generikoarekin (18):

(15) *Arte Ederren Fakultatea*

(16) *Lan Harremanen Unibertsitate Eskola*

(17) *Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola*

(18) [*Arte ederren arloko fakultatea* → ?*Arte Ederretako Fakultatea*]

- 2.5.3 Institutuen kasuan, lotura zuzen naturalagorik ez zenean, beste parafraisi honetara ekarri dugu deitura:

(19) a) *Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional*

b) *Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari buruzko Azterlanen Institutua*

- 2.6 *Ikastetxe* prototipokoetatik kanpokoetan, erdarazko erlazio-izenondoen ordainei deritzegu aipagarrien:

2.6.1 *Ekoizpen* hitzarekin —aditz batetik eratorria izanik—, “ekoizten den zera” zuzenean lotu dugu elkarketaz, zentzu mugagabea (inespezifikoa) gordez, *lore(-)salmenta* ereduari jarraiki (*Xen ekoizpena* eginez gero, “X horrek ekoizten duena” ulertzeko arrisku handiagoa legoke: zuhaitzak kautxua, ostrukak arrautza edo luma...):

(20) *Landare Ekoizpena*

(21) *Animalia Ekoizpena*

2.6.2 *Fisiologia* edo paretsuko sail-arlo izenekin, aldiz, aztergai espezifikoa dator konplementazioan, eta argumentu nagusi modura doa, beraz, mugatuan:

(22) *Landareen Fisiologia*

(23) *Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia*

(24) *Zelulen Biologia*

2.6.3 Oro har, aurrekoetan bezala, izenlagunez edo elkarketaz ematen saiatu gara, erdarazkoaren kalkozko izenondoa desegokia edo —beste bideok aukeran egonik— alferrikakoa zela iritzi diogun kasuetan (*social, corporal, animal, vegetal, constitucional, musical, agroforestal, medieval, empresarial, legal (y forense), escolar, celular, económico, arquitectónico, agrícola, cooperativo...*). Horrek ez du esan nahi desegokitzen jotzen ditugunik izenondo horietariko batzuk, nahitaez, beste testuinguru batzuetan. Izendegiko kasuaz ari gara.

Bada, hala ere, salbuespenik, izenondo batzuek adierazten duten erlazioa ez baita zenbaitetan hain zuzena, hitzaren bilakabidearengatik. Esaterako, *nuclear* hitzean, nekez joan gitezke, dagoeneko, *núcleo* hitzaren bidez adieraztera esanahia. Halakoetan, bada, nazioarteko izenondoei eutsi diegu (batzuetan, sintaxi-arrazoirik ere bada tartean):

(25) *Fisika Atomikoa, Molekularra eta Nuklearra*

(26) *Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak*

(27) *Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Patologia*

Hala erabili ditugu, besteak beste, honako izenondo hauek: *analitiko, mekaniko, organiko, kimiko, informatiko, publiko, tekniko, galeniko, telematiko, erromaniko, moral, fiskal, penal, prozesal, aeroespazial...*

Sail horretakoei buruz ere esan behar dugu ez dela beti guk aukeratu dugun bidea egoki den bakarra. Esaterako, *hizkuntza informatiko* bezain egokia da noski *konputagailu-hizkuntza*, eta *penal* eta *zigor-* ere aukerakoak dira askotan: *Zigor Kodea*. Ez gabiltza, bada, bataren edo bestearen aldeko lehian, baizik eta, zalantzak zalantza (eta espezialistenak berenak ere badira zalantzok), izendegirako bat hautatzen.

Muga ezartzen zaila bada ere, badira euskaraz erabat errotuta dauden halako izenondo arrunt batzuk, sail berekoak, izatez, baina erreferentzia adieraztetik (eta, bidenabar, izena sailkatzetik) nolakotasuna adieraztera pauso bat gehiago eman dutenak (–*iko* eta –*al* atzizkiez osatuak dira behinenak), eta halaxe ageri dira izendegian ere, jakina, izenondok:

- (28) *Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia*
- (29) *Ikasketa Klasikoak*
- (30) *Konputazio Zientziak eta Adimen Artifiziala*
- (31) *Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika*
- (32) *Euskal Herriaren Zuzenbide Historikoaren Institutua*

Halako batzuek, hain zuzen, euskarazko ordain garbia dute, izenondoz: *general/orokor*. Aitzitik, *kontzertu/itun ekonomikoa* kalkozkoak, zinezkoa balitz *ekonomiko* hori hor (alegia, izenondo arrunta balitz, eta ez erlazio-izenondoa), sinonimo luke, besteak beste, *kontzertu/itun merkea*. Inertziak inertzia, bada, *ekonomia-ituna* ereduari eustea komeni da.

3. MARRATXOAREN ERABILERA HITZ-ELKARTEETAN

- 3.1 Erakunde-izenen lehen letra, gehienetan, larria dela kontuan harturik, oro har, ez dugu marratxorik erabili mendekotasunezko elkarteetan. Beraz,

(33) *Zuzenbide Fakultatea*

- 3.2 Mendekotasunezko elkarte batzuetan, teorian, zenbait anbigutasun gertatzen da. Nolanahi ere, halako hitz-elkarteak ere marratxorik gabe idaztea erabaki dugu, erabiltzaileen ezaguera pragmatikoak anbigutasunok desegino dituelakoan. Teorian anbiguo gerta daitezkeen honako deitura hauetan, esaterako, irakurle zuhurrak ez du problema handirik izango bigarren irakurketa (b) baztertzeko:

- (34) *Didaktika eta Eskola Antolakuntza*
 - a) [didaktika] + [eskola-antolakuntza]
 - b) [didaktika-antolakuntza] + [eskola-antolakuntza]
- (35) *Farmazia, Elikadura, Teknologia eta Animalia Ekoizpena*
 - a) [farmazia] + [elikadura] + [teknologia] + [animalia-ekoizpena]
 - b) [farmazia-ekoizpena] + [...] + [teknologia-ekoizpena] + [animalia-ekoizpena]
- (36) *Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza*
 - a) [hirigintza] + [lurralde-antolakuntza]
 - b) [hirigintza-antolakuntza] + [lurralde-antolakuntza]

- (37) *Toxikologia eta Osasun Legeria*
 a) [Toxikologia] + [Osasun-legeria]
 b) [Toxikologia-legeria] + [Osasun-legeria]
- (38) *Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia*
 a) [zoologia] + [[animalia-zelulen] biologia]
 b) [[zoologia-zelulen] + [animalia-zelulen]] biologia

3.3 Gorago adierazi dugun bezala, oro har, ez dugu elkarketa hirukoitzik onartu (39, 40). Hala ere, salbuespen diren bi kasuetan (41, 42), marratxoa erabili dugu berrelkarketaren barne-osagaiak bereizteko. Adibidez,

- (39) a) **Donostiako Erizaintza Unibertsitate Eskola* →
 b) *Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola*
- (40) a) **Arte Eder Fakultatea* →
 b) *Arte Ederren Fakultatea*
- (41) *Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa*
 (42) *Musika-terapia Institutua*

3.4 Marratxoa erabili behar da, nahitaez, *joan-etorri* moduko elkarteetan:

- (43) *Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea*

4. IZENDEGIA ETA HIZTEGI BATUA

Gure eginbeharra zen, noski, Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuko irizpide, gomendio eta lehenespenen arabera moldatzea edo egokitzea lehendik etorri izan zaizkigun izen batzuk, hala nola:

- (44) *Ingurugiro: h. ingurumen [Hiztegi Batua]*
 (45) *Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza*
 (46) *Ingurumenaren Teknologiak*
- (47) *Immunitate, immunizatu [Hiztegi Batua]*
 (48) *Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia (*immunologia)*
- (49) *Lengoaia: Zah. h. mintzaira, hizkuntza [Hiztegi Batua]*
 (50) *Hizkuntza eta Sistema Informatikoak*

5. SAILEN ETA JAKINTZA-ARLOEN JOSKERA

Sailen eta jakintza-arloen izena ematerakoan, *sail* edota *jakintza-arlo* hitzak agerian utzi behar badira, aposizio-bidea eta baliabide ortotipografikoak (letra etzana) erabiltzea gomendatzen dugu (51 eta 53), eta ez erlazio-atzizkia (-ko, -en) agerian uztea (52, 54). Honela:

- (51) *Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak* saila
- (52) ? Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuen saila
- (53) *Administrazio Zuzenbidea* jakintza(-)arloan
- (54) ? Administrazio Zuzenbideko/Zuzenbidearen jakintza(-)arloan

6. ERDARAZKO IZENEN ILUNTASUNA

Erdal izenen ordainak ematea egokitu zaigu izendegi hau prestatzean. Sarri askotan, erdal deitura horiek nahi baino ilunagoak izaten dira, nahiz eta erabileraren poderioz jendeari arruntak iruditzen zaizkion. Horrelako deitura ilunen aurrean, batzuetan, jatorrizkoaren zehaztugabetasuna edo iluntasuna “argitzen” saiatu gara.

- (55) a) *Derecho Constitucional e Historia del Pensamiento y de los Movimientos Sociales y Políticos*
b) *Konstituzio Zuzenbidea eta Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia*
- (56) a) *Ciencias y Técnicas de la Navegación, Máquinas y Construcciones Navales*
b) *Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasontzigintza*
- (57) a) *Ingeniería Cartográfica, Geodésica y Fotogrametría*
b) *Kartografia, Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza*

Anbiguitasun batzuk beren horretan utzi dira:

- (58) a) *Bioquímica y Biología Molecular*
b) *Biokimika eta Biologia Molekularra*

UPV/EHU-KO IZENDEGIA:
IKASTEGI, SAIL, JAKINTZA-
ARLO ETA INSTITUTUEN
IZENDEGIA

NOMENCLÁTOR DE CENTROS,
DEPARTAMENTOS, ÁREAS DE
CONOCIMIENTO E INSTITUTOS DE LA
UPV/EHU

EUSKAL IZENA	ERDAL IZENA	ATALA
Adierazpen Grafikoa eta Ingeniaritzako Proiektuak	Expresión Gráfica y Proyectos de Ingeniería	Saila
Administrazio Zuzenbidea	Derecho Administrativo	Jakintza-arloa
Aleman Filologia	Filología Alemana	Jakintza-arloa
Aljebra	Álgebra	Jakintza-arloa
Amerikaren Historia	Historia de América	Jakintza-arloa
Analisi Matematikoa	Análisis Matemático	Jakintza-arloa
Anatomia eta Anatomia Patologiko Konparatuak	Anatomía y Anatomía Patológica Comparadas	Jakintza-arloa
Anatomia Patologikoa	Anatomía Patológica	Jakintza-arloa
Animalia Ekoizpena	Producción Animal	Jakintza-arloa
Animalia Medikuntza eta Kirurgia	Medicina y Cirugía Animal	Jakintza-arloa
Animalien Osasunbidea	Sanidad Animal	Jakintza-arloa
Antropologia Fisikoa	Antropología Física	Jakintza-arloa
Antzinaroaren Historia	Historia Antigua	Jakintza-arloa
Antzinate Jakintzen Institutua	Instituto de Ciencias de la Antigüedad	Institutua
Arabiar eta Islamiar Ikasketak	Estudios Árabes e Islámicos	Jakintza-arloa

Arkeologia	Arqueología	Jakintza-arloa
Arkitektura	Arquitectura	Saila
Arkitektura Eraikuntzak	Construcciones Arquitectónicas	Jakintza-arloa
Arkitektura Goi Eskola Teknikoa	Escuela Técnica Superior de Arquitectura	Ikastegia (Eskola)
Arkitektura Konposizioa	Composición Arquitectónica	Jakintza-arloa
Arkitekturako Adierazpen Grafikoa	Expresión Gráfica Arquitectónica	Jakintza-arloa
Arkitekturako Proiektuak	Proyectos Arquitectónicos	Jakintza-arloa
Aro Berriaren Historia	Historia Moderna	Jakintza-arloa
Arte Ederren Fakultatea	Facultad de Bellas Artes	Ikastegia (Fakultatea)
Artearen Historia	Historia del Arte	Jakintza-arloa
Artearen Historia eta Musika	Historia del Arte y Música	Saila
Astronomia eta Astrofisika	Astronomía y Astrofísica	Jakintza-arloa
Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia	Filosofía de los Valores y Antropología Social	Saila
Barne Geodinamika	Geodinámica Interna	Jakintza-arloa
Basurtuko Institutu Medikoa	Instituto Médico de Basurto	Institutua
“Begoñako Andra Mari” Irakasleen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Magisterio “Begoñako Andra Mari”	Ikastegia (UPV/EHUri atxikitako ikastegia)
Bibliotekonomia eta Dokumentazioa	Biblioteconomía y Documentación	Jakintza-arloa
Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia	Psicología Evolutiva y de la Educación	Jakintza-arloa
Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia	Psicología Evolutiva y de la Educación	Saila
Bilboko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Bilbao	Ikastegia (Eskola)
Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Bilbao	Ikastegia (Eskola)

Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoa	Escuela Técnica Superior de Ingeniería de Bilbao	Ikastegia (Eskola)
Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Magisterio de Bilbao	Ikastegia (Eskola)
Bilboko Merkataritza, Industria eta Itsasketa Ganberako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de la Cámara de Comercio, Industria y Navegación de Bilbao.	Ikastegia (UPV/EHUri atxikitako ikastegia)
Biokimika eta Biologia Molekularra	Bioquímica y Biología Molecular	Jakintza-arloa
Biokimika eta Biologia Molekularra	Bioquímica y Biología Molecular	Saila
Biologia Aplikatuaren Institutua (BIOIKER)	Instituto de Biología Aplicada	Institutua
Botanika	Botánica	Jakintza-arloa
Dermatologia	Dermatología	Jakintza-arloa
Dermatologia, Oftalmologia eta Otorrinolaringologia	Dermatología, Oftalmología y Otorrinolaringología	Saila
Didaktika eta Eskola Antolakuntza	Didáctica y Organización Escolar	Jakintza-arloa
Didaktika eta Eskola Antolakuntza	Didáctica y Organización Escolar	Saila
Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Donostia-San Sebastián	Ikastegia (Eskola)
Donostiako Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Enfermería de Donostia-San Sebastián	Ikastegia (Eskola)
Donostiako Irakasleen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Magisterio de Donostia-San Sebastián	Ikastegia (Eskola)
Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	Escuela Universitaria Politécnica de Donostia-San Sebastián	Ikastegia (Eskola)
Edafologia eta Nekazaritzako Kimika	Edafología y Química Agrícola	Jakintza-arloa
Ehun eta Paper Ingeniaritza	Ingeniería Textil y Papelera	Jakintza-arloa

Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial de Éibar	Ikastegia (Eskola)
Ekialdeko Asiako Ikasketak	Estudios de Asia Oriental	Jakintza-arloa
Ekologia	Ecología	Jakintza-arloa
Ekonomia Analisiaren Oinarriak	Fundamentos de Análisis Económico	Jakintza-arloa
Ekonomia Analisiaren Oinarriak I	Fundamentos de Análisis Económico I	Saila
Ekonomia Analisiaren Oinarriak II	Fundamentos del Análisis Económico II	Saila
Ekonomia Aplikatua	Economía Aplicada	Jakintza-arloa
Ekonomia Aplikatua I	Economía Aplicada I	Saila
Ekonomia Aplikatua II (Ogasun Publikoa eta Zuzenbide Fiskala)	Economía Aplicada II (Hacienda Pública y Derecho Fiscal)	Saila
Ekonomia Aplikatua III (Ekonometria eta Estatistika)	Economía Aplicada III (Econometría y Estadística)	Saila
Ekonomia Aplikatua IV	Economía Aplicada IV	Saila
Ekonomia Aplikatua V	Economía Aplicada V	Saila
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea	Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales	Ikastegia (Fakultatea)
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Donostiako Ordezkaritza	Unidad Delegada de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales en Donostia-San Sebastián	Ikastegia (ordezkaritza)
Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen Gasteizko Ordezkaritza	Unidad Delegada de la Facultad de Ciencias Económicas y Empresariales en Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (ordezkaritza)
Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak	Historia e Instituciones Económicas	Jakintza-arloa
Ekonomia Historia eta Ekonomia Erakundeak	Historia e Instituciones Económicas	Saila
Ekonomia Publikoaren Institutua	Instituto de Economía Pública	Institutua
Ekonomiarako eta Enpresarako Metodo Kuantitatiboak	Métodos Cuantitativos para la Economía y la Empresa	Jakintza-arloa
Elektrizitatea eta Elektronika	Electricidad y Electrónica	Saila

Elektromagnetismoa	Electromagnetismo	Jakintza-arloa
Elektronika	Electrónica	Jakintza-arloa
Elektronika eta Telekomunikazioak	Electrónica y Telecomunicaciones	Saila
Elikadura eta Bromatologia	Nutrición y Bromatología	Jakintza-arloa
Elikagaien Teknologia	Tecnología de Alimentos	Jakintza-arloa
Enpresa Zuzenbidea	Derecho de la Empresa	Saila
Enpresari Aplikaturiko Ekonomiaren Institutua	Instituto de Economía Aplicada a la Empresa	Institutua
Enpresen Antolakuntza	Organización de Empresas	Jakintza-arloa
Enpresen Antolakuntza	Organización de Empresas	Saila
Enpresen Kudeaketa eta Berrikuntzaren Balioespena	Evaluación de la Gestión e Innovación Empresarial	Saila
Epidemiologiari eta Bihotzhodietako Gaixotasunen Prebentzioari buruzko Azterlanen Institutua	Instituto de Epidemiología y Prevención de Enfermedades Cardiovasculares	Institutua
Eraikuntzako Ingeniaritza	Ingeniería de la Construcción	Jakintza-arloa
Erdi Aroaren Historia	Historia Medieval	Jakintza-arloa
Erdi Aroaren, Aro Berriaren eta Amerikaren Historia	Historia Medieval, Moderna y de América	Saila
Erizaintza	Enfermería	Jakintza-arloa
Erizaintza	Enfermería	Saila
Erizaintza II	Enfermería II	Saila
Erligio Mintegia (I.I.G. ²)	Seminario de Religión (U.D.I. ³)	Saila
Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa	Radiología y Medicina Física	Jakintza-arloa
Erromatar Zuzenbidea	Derecho Romano	Jakintza-arloa
Eskualde Análisi Geografikoa	Análisis Geográfico Regional	Jakintza-arloa
Eskultura	Escultura	Jakintza-arloa
Eskultura	Escultura	Saila
Eslaviar Filologia	Filología Eslava	Jakintza-arloa

² Irakaskuntza- eta Ikerketa-Gunea

³ Unidad Docente de Investigación

Espainiar Literatura	Literatura Española	Jakintza-arloa
Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa	Estadística e Investigación Operativa	Jakintza-arloa
Estatuaren Eliza Zuzenbidea	Derecho Eclesiástico del Estado	Jakintza-arloa
Estatuaren Eliza Zuzenbidea eta Erromatar Zuzenbidea	Derecho Eclesiástico del Estado y Derecho Romano	Saila
Estetika eta Arteen Teoria	Estética y Teoría de las Artes	Jakintza-arloa
Estomatologia	Estomatología	Jakintza-arloa
Estomatologia	Estomatología	Saila
Estratigrafia	Estratigrafía	Jakintza-arloa
Estratigrafia eta Paleontologia	Estratigrafía y Paleontología	Saila
Euskal Filologia	Filología Vasca	Jakintza-arloa
Euskal Filologia	Filología Vasca	Saila
Euskal Herriko Historiaren Institutua	Instituto de Historia del País Vasco	Institutua
Euskal Herriko Zuzenbide Historikoaren Institutua	Instituto de Derecho Histórico de Euskal Herria	Institutua
Euskara Institutua	Instituto de Euskara	Institutua
Fabrikazio Prozesuen Ingeniaritza	Ingeniería de los Procesos de Fabricación	Jakintza-arloa
Farmakologia	Farmacología	Jakintza-arloa
Farmakologia	Farmacología	Saila
Farmazia eta Elikagaien Zientziak	Farmacia y Ciencias de los Alimentos	Saila
Farmazia eta Farmazia Teknologia	Farmacia y Tecnología Farmacéutica	Jakintza-arloa
Farmazia Fakultatea	Facultad de Farmacia	Ikastegia (Fakultatea)
Filologia Erromanikoa	Filología Románica	Jakintza-arloa
Filologia eta Geografia-Historia Fakultatea	Facultad de Filología y Geografía e Historia	Ikastegia (Fakultatea)
Filologia Grekoa	Filología Griega	Jakintza-arloa
Filosofia	Filosofía	Jakintza-arloa
Filosofia	Filosofía	Saila

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea	Facultad de Filosofía y Ciencias de la Educación	Ikastegia (Fakultatea)
Filosofia Morala	Filosofía Moral	Jakintza-arloa
Finantza Ekonomia eta Kontabilitatea	Economía Financiera y Contabilidad	Jakintza-arloa
Finantza Ekonomia I (Enpresen Kontabilitatea eta Administrazioa)	Economía Financiera I (Contabilidad y Administración de Empresas)	Saila
Finantza Ekonomia II (Enpresa Ekonomia eta Merkaturatzea)	Economía Financiera II (Economía de la Empresa y Comercialización)	Saila
Finantza eta Aktuariotza Azterlanen Institutua	Instituto de Estudios Financieros-Actuariales	Institutua
Finantza eta Zerga Zuzenbidea	Derecho Financiero y Tributario	Jakintza-arloa
Fisika Aplikatua	Física Aplicada	Jakintza-arloa
Fisika Aplikatua I	Física Aplicada I	Saila
Fisika Aplikatua II	Física Aplicada II	Saila
Fisika Atomikoa, Molekularra eta Nuklearra	Física Atómica, Molecular y Nuclear	Jakintza-arloa
Fisika Teorikoa	Física Teórica	Jakintza-arloa
Fisika Teorikoa eta Zientziaren Historia	Física Teórica e Historia de la Ciencia	Saila
Fisiologia	Fisiología	Jakintza-arloa
Fisiologia	Fisiología	Saila
Fisioterapia	Fisioterapia	Jakintza-arloa
Frantses Filologia	Filología Francesa	Jakintza-arloa
Frantses Filologia	Filología Francesa	Saila
Galiziar eta Portugaldar Filologia	Filología Gallega y Portuguesa	Jakintza-arloa
Garapenaren eta Mundu Ekonomiaren Institutua	Instituto de Estudios sobre el Desarrollo y la Economía Mundial (HEGOA)	Institutua
Garraioen Ingeniaritza eta Azpiegitura	Ingeniería e Infraestructura de los Transportes	Jakintza-arloa
Gasteizko Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Estudios Empresariales de Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (Eskola)

Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Enfermería de Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (UPV/EHUri atxikitako ikastegia)
Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Trabajo Social de Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (Eskola)
Gasteizko Ingeniaritzako Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Ingeniería de Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (Eskola)
Gasteizko Irakasleen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Magisterio de Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (Eskola)
Gaztelania	Lengua Española	Jakintza-arloa
Genetika	Genética	Jakintza-arloa
Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia	Genética, Antropología Física y Fisiología Animal	Saila
Geodinamika	Geodinámica	Saila
Geografia Fisikoa	Geografía Física	Jakintza-arloa
Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia	Geografía, Prehistoria y Arqueología	Saila
Geometria eta Topologia	Geometría y Topología	Jakintza-arloa
Giza Anatomia eta Enbriologia	Anatomía y Embriología Humana	Jakintza-arloa
Giza Geografia	Geografía Humana	Jakintza-arloa
Gizarte Antropologia	Antropología Social	Jakintza-arloa
Gizarte Ekonomiaren eta Kooperatiba Zuzenbidearen Institutua	Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social	Institutua
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	Facultad de Ciencias Sociales y de la Comunicación	Ikastegia (Fakultatea)
Gizarte Langintza eta Gizarte Zerbitzuak	Trabajo Social y Servicios Sociales	Jakintza-arloa
Gizarte Pentsamendu eta Mugimenduen Historia	Historia del Pensamiento y de los Movimientos Sociales	Jakintza-arloa
Gizarte Psikologia	Psicología Social	Jakintza-arloa
Gizarte Psikologia eta Portaera Zientzien Metodologia	Psicología Social y Metodología de las Ciencias del Comportamiento	Saila

Gizarte Zientzien Didaktika	Didáctica de las Ciencias Sociales	Jakintza-arloa
Gizarte Zientzien Didaktika	Didáctica de las Ciencias Sociales	Saila
Gorputz Adierazpidearen Didaktika	Didáctica de la Expresión Corporal	Jakintza-arloa
Gorputz eta Kirol Hezkuntza	Educación Física y Deportiva	Jakintza-arloa
Gorputz eta Kirol Hezkuntza	Educación Física y Deportiva	Saila
Hebrear eta Aramear Ikasketak	Estudios Hebreos y Arameos	Jakintza-arloa
Hezkuntza Zientzien Institutua	Instituto de Ciencias de la Educación	Institutua
Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak	Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación	Jakintza-arloa
Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak	Métodos de Investigación y Diagnóstico en Educación	Saila
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Teoría e Historia de la Educación	Jakintza-arloa
Hezkuntzaren Teoria eta Historia	Teoría e Historia de la Educación	Saila
Hirigintza eta Lurralde Antolakuntza	Urbanística y Ordenación del Territorio	Jakintza-arloa
Hispaniar Filologia, Filologia Erromanikoa eta Literaturaren Teoria	Filología Hispánica, Románica y Teoría de la Literatura	Saila
Histologia	Histología	Jakintza-arloa
Historia Garaikidea	Historia Contemporánea	Jakintza-arloa
Historia Garaikidea	Historia Contemporánea	Saila
Historiaurrea	Prehistoria	Jakintza-arloa
Historiografia Zientziak eta Teknikak	Ciencias y Técnicas Historiográficas	Jakintza-arloa
Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	Lenguajes y Sistemas Informáticos	Jakintza-arloa
Hizkuntza eta Sistema Informatikoak	Lenguajes y Sistemas Informáticos	Saila
Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak	Lingüística y Estudios Vascos	Saila
Hizkuntzalaritza Orokorra	Lingüística General	Jakintza-arloa

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	Didáctica de la Lengua y la Literatura	Jakintza-arloa
Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika	Didáctica de la Lengua y la Literatura	Saila
Hizkuntzaren Pedagogiaren Institutua	Instituto de Pedagogía de la Lengua	Institutua
Ikasketa Klasikoak	Estudios Clásicos	Saila
Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea	Comunicación Audiovisual y Publicidad	Jakintza-arloa
Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea	Comunicación Audiovisual y Publicidad	Saila
Immunologia	Inmunología	Jakintza-arloa
Immunologia, Mikrobiologia eta Parasitologia	Inmunología, Microbiología y Parasitología	Saila
Indoeuropar Hizkuntzalaritza	Lingüística Indoeuropea	Jakintza-arloa
Industria Ekonomia	Economía Industrial	Saila
Informatika Fakultatea	Facultad de Informática	Ikastegia (Fakultatea)
Ingeles eta Aleman Filologia	Filología Inglesa y Alemana	Saila
Ingeles Filologia	Filología Inglesa	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Aeroespaziala	Ingeniería Aeroespacial	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Elektrikoa	Ingeniería Eléctrica	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Elektrikoa	Ingeniería Eléctrica	Saila
Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoaren Donostiako Ordezkaritza	Unidad Delegada de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería en Donostia-San Sebastián	Ikastegia (ordezkaritza)
Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoaren Gasteizko Ordezkaritza	Unidad Delegada de la Escuela Técnica Superior de Ingeniería en Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (ordezkaritza)
Ingeniaritza Hidraulikoa	Ingeniería Hidráulica	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Kimikoa	Ingeniería Química	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Kimikoa	Ingeniería Química	Saila
Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza	Ingeniería Química y del Medio Ambiente	Saila
Ingeniaritza Mekanikoa	Ingeniería Mecánica	Jakintza-arloa

Ingeniaritza Mekanikoa	Ingeniería Mecánica	Saila
Ingeniaritza Nuklearra	Ingeniería Nuclear	Jakintza-arloa
Ingeniaritza Nuklearra eta Jariakinen Mekanika	Ingeniería Nuclear y Mecánica de Fluidos	Saila
Ingeniaritza Telematikoa	Ingeniería Telemática	Jakintza-arloa
Ingeniaritzako Adierazpen Grafikoa	Expresión Gráfica en la Ingeniería	Jakintza-arloa
Ingeniaritzako Proiektuak	Proyectos de Ingeniería	Jakintza-arloa
Ingurumen Jarraituen Mekanika eta Egituren Teoria	Mecánica de Medios Continuos y Teoría de Estructuras	Jakintza-arloa
Ingurumenaren Teknologiak	Tecnologías del Medio Ambiente	Jakintza-arloa
Irudigintza	Dibujo	Jakintza-arloa
Irudigintza	Dibujo	Saila
Italiar Filologia	Filología Italiana	Jakintza-arloa
Itsasketa Zientzia eta Teknikak	Ciencias y Técnicas de la Navegación	Jakintza-arloa
Itsasketa Zientzia eta Teknikak, Itsasontzi Makinak eta Itsasontzigintza	Ciencias y Técnicas de la Navegación, Máquinas y Construcciones Navales	Saila
Itsasontzigintza	Construcciones Navales	Jakintza-arloa
Itzulpengintza eta Interpretazioa	Traducción e Interpretación	Jakintza-arloa
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea	Facultad de Ciencias de la Actividad Física y del Deporte	Ikastegia (Fakultatea)
Jariakinen Mekanika	Mecánica de Fluidos	Jakintza-arloa
Kanpo Geodinamika	Geodinámica Externa	Jakintza-arloa
Kantabriar Historiaurrearen Unibertsitate arteko Institutua	Instituto Interuniversitario de Prehistoria Cantábrica	Institutua
Kartografia, Geodesia eta Fotogrametria Ingeniaritza	Ingeniería Cartográfica, Geodésica y Fotogrametría	Jakintza-arloa
Katalan Filologia	Filología Catalana	Jakintza-arloa
Kazetaritza	Periodismo	Jakintza-arloa
Kazetaritza	Periodismo	Saila
Kazetaritza II	Periodismo II	Saila
Kimika Analitikoa	Química Analítica	Jakintza-arloa

Kimika Analitikoa	Química Analítica	Saila
Kimika Aplikatua	Química Aplicada	Saila
Kimika Ez-organikoa	Química Inorgánica	Jakintza-arloa
Kimika Ez-organikoa	Química Inorgánica	Saila
Kimika Fisikoa	Química Física	Jakintza-arloa
Kimika Fisikoa	Química Física	Saila
Kimika Organikoa	Química Orgánica	Jakintza-arloa
Kimika Organikoa I	Química Orgánica I	Saila
Kimika Organikoa II	Química Orgánica II	Saila
Kimika Zientzien Fakultatea	Facultad de Ciencias Químicas	Ikastegia (Fakultatea)
Kirurgia	Cirugía	Jakintza-arloa
Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa	Cirugía, Radiología y Medicina Física	Saila
Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	Arquitectura y Tecnología de Computadores	Jakintza-arloa
Konputagailuen Arkitektura eta Teknologia	Arquitectura y Tecnología de Computadores	Saila
Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala	Ciencia de la Computación e Inteligencia Artificial	Jakintza-arloa
Konputazio Zientzia eta Adimen Artifiziala	Ciencia de la Computación e Inteligencia Artificial	Saila
Konstituzio Zuzenbidea	Derecho Constitucional	Jakintza-arloa
Konstituzio Zuzenbidea, Administrazio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen Filosofia	Derecho Constitucional, Administrativo y Filosofía del Derecho	Saila
Konstituzio Zuzenbidea eta Politika Pentsamenduaren eta Gizarte Mugimenduen Historia	Derecho Constitucional e Historia del Pensamiento y de los Movimientos Sociales y Políticos	Saila
Kriminologiaren Euskal Institutua	Instituto Vasco de Criminología	Institutua
Kristalografia eta Mineralogia	Cristalografía y Mineralogía	Jakintza-arloa
Lan Harremanen Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Relaciones Laborales	Ikastegia (Eskola)
Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea	Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social	Jakintza-arloa

Landare Ekoizpena	Producción Vegetal	Jakintza-arloa
Landareen Biologia eta Ekologia	Biología Vegetal y Ecología	Saila
Landareen Fisiologia	Fisiología Vegetal	Jakintza-arloa
Latin Filologia	Filología Latina	Jakintza-arloa
Lege eta Auzitegi Medikuntza	Medicina Legal y Forense	Jakintza-arloa
Leioako Erizaintzako Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Enfermería de Leioa	Ikastegia (Eskola)
Literaturaren Teoria eta Literatura Konparatua	Teoría de la Literatura y Literatura Comparada	Jakintza-arloa
Logika eta Zientziaren Filosofia	Lógica y Filosofía de la Ciencia	Jakintza-arloa
Logika eta Zientziaren Filosofia	Lógica y Filosofía de la Ciencia	Saila
Logika, Ezagutza, Mintzaira eta Informazioaren Institutua	Instituto de Lógica, Cognición, Lenguaje e Información (ILCLI)	Institutua
Lurraren Fisika	Física de la Tierra	Jakintza-arloa
Lurren Injeniaritza	Ingeniería del Terreno	Jakintza-arloa
Makina eta Motor Termikoak	Máquinas y Motores Térmicos	Jakintza-arloa
Makina eta Motor Termikoak	Máquinas y Motores Térmicos	Saila
Margolaritza	Pintura	Jakintza-arloa
Margolaritza	Pintura	Saila
Matematika	Matemáticas	Saila
Matematika Aplikatua	Matemática Aplicada	Jakintza-arloa
Matematika Aplikatua	Matemática Aplicada	Saila
Matematika Aplikatua, Estatistika eta Ikerkuntza Operatiboa	Matemática Aplicada y Estadística e Investigación Operativa	Saila
Matematikaren Didaktika	Didáctica de la Matemática	Jakintza-arloa
Matematikaren eta Zientzia Esperimentalen Didaktika	Didáctica de la Matemática y de las Ciencias Experimentales	Saila
Materia Kondentsatuaren Fisika	Física de la Materia Condensada	Jakintza-arloa
Materia Kondentsatuaren Fisika	Física de la Materia Condensada	Saila
Material Polimerikoen Institutua	Instituto de Materiales Poliméricos (POLYMAT)	Institutua
Materialen Fisika	Física de Materiales	Saila

Materialen Sintesi eta Ikerkuntzaren Institutua	Instituto de Síntesis y Estudios de Materiales	Institutua
Materialen Zientzia eta Metalurgia Ingeniaritza	Ciencia de los Materiales e Ingeniería Metalúrgica	Jakintza-arloa
Meatze eta Metalurgia Ingeniaritza eta Materialen Zientzia	Ingeniería Minera y Metalúrgica, Ciencia de los Materiales	Saila
Meatze Prospekzio eta Ikerkuntza	Prospección e Investigación Minera	Jakintza-arloa
Meatzen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola	Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica de Minas y de Obras Públicas	Ikastegia (Eskola)
Meatzen Ustiapena	Explotación de Minas	Jakintza-arloa
Medikuntza	Medicina	Jakintza-arloa
Medikuntza	Medicina	Saila
Medikuntza eta Kirurgia Espezialitateak	Especialidades Medico-Quirúrgicas	Saila
Medikuntza eta Odontologia Fakultatea	Facultad de Medicina y Odontología	Ikastegia (Fakultatea)
Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Basurtuko Irakasgunea	Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en Basurto	Ikastegia (ordezkaritza)
Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Donostiako Irakasgunea	Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en San Sebastián	Ikastegia (ordezkaritza)
Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Gasteizko Irakasgunea	Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en Vitoria-Gasteiz	Ikastegia (ordezkaritza)
Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen Gurutzetako Irakasgunea	Unidad Docente de la Facultad de Medicina y Odontología en Cruces	Ikastegia (ordezkaritza)
Merkataritza Zuzenbidea	Derecho Mercantil	Jakintza-arloa
Merkaturatzea eta Merkatuen Ikerkuntza	Comercialización e Investigación de Mercados	Jakintza-arloa
Mikrobiologia	Microbiología	Jakintza-arloa
Mineralogia eta Petrologia	Mineralogía y Petrología	Saila

Musika	Música	Jakintza-arloa
Musika Adierazpidearen Didaktika	Didáctica de la Expresión Musical	Jakintza-arloa
Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpidearen Didaktika	Didáctica de la Expresión Musical, Plástica y Corporal	Saila
Musika-terapia Institutua	Instituto de Musicoterapia	Institutua
Nautika eta Itsasontzi-makineria Goi Eskola Teknikoa	Escuela Técnica Superior de Náutica y Máquinas Navales	Ikastegia (Eskola)
Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari buruzko Azterlanen Institutua	Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional	Institutua
Nazioarteko Zuzenbide Pribatua	Derecho Internacional Privado	Jakintza-arloa
Nazioarteko Zuzenbide Publikoa eta Nazioarteko Harremanak	Derecho Internacional Público y Relaciones Internacionales	Jakintza-arloa
Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia	Derecho Internacional Público, Relaciones Internacionales e Historia del Derecho	Saila
Nekazaritza eta Basozaintzako Ingeniaritza	Ingeniería Agroforestal	Jakintza-arloa
Nekazaritzaren Ekonomia, Soziologia eta Politika	Economía, Sociología y Política Agraria	Jakintza-arloa
Neurozientziak	Neurociencias	Saila
Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua	Personalidad, Evaluación y Tratamiento Psicológico	Jakintza-arloa
Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamendua	Personalidad, Evaluación y Tratamiento Psicológico	Saila
Obstetrizia eta Ginekologia	Obstetricia y Ginecología	Jakintza-arloa
Oftalmologia	Oftalmología	Jakintza-arloa
Oinarrizko Psikologia	Psicología Básica	Jakintza-arloa
Oinarrizko Psikologia Prozesuak eta haien Garapena	Procesos Psicológicos Básicos y su Desarrollo	Saila
Optika	Óptica	Jakintza-arloa
Otorrinolaringologia	Otorrinolaringología	Jakintza-arloa
Paleontologia	Paleontología	Jakintza-arloa
Parasitologia	Parasitología	Jakintza-arloa

Pediatria	Pediatría	Jakintza-arloa
Pediatria	Pediatría	Saila
Petrologia eta Geokimika	Petrología y Geoquímica	Jakintza-arloa
Plastika Adierazpidearen Didaktika	Didáctica de la Expresión Plástica	Jakintza-arloa
Polimeroen Zientzia eta Teknologia	Ciencia y Tecnología de Polímeros	Saila
Politika eta Administrazio Zientzia	Ciencia Política y de la Administración	Jakintza-arloa
Politika eta Administrazio Zientzia	Ciencia Política y de la Administración	Saila
Portaera Zientzien Metodologia	Metodología de las Ciencias y del Comportamiento	Jakintza-arloa
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	Medicina Preventiva y Salud Pública	Jakintza-arloa
Prebentzio Medikuntza eta Osasun Publikoa	Medicina Preventiva y Salud Pública	Saila
Prozesuen Ikerkuntza eta Garapenaren Institutua	Instituto de Investigación y Desarrollo de Procesos	Institutua
Psikiatria	Psiquiatría	Jakintza-arloa
Psikobiologia	Psicobiología	Jakintza-arloa
Psikologia Fakultatea	Facultad de Psicología	Ikastegia (Fakultatea)
Seinalearen Teoria eta Komunikazioak	Teoría de la Señal y Comunicaciones	Jakintza-arloa
Sistemen Ingeniaritza eta Automatika	Ingeniería de Sistemas y Automática	Jakintza-arloa
Sistemen Ingeniaritza eta Automatika	Ingeniería de Sistemas y Automática	Saila
Soziologia	Sociología	Jakintza-arloa
Soziologia	Sociología	Saila
Soziologia II	Sociología II	Saila
Teknologia Elektronikoa	Tecnología Electrónica	Jakintza-arloa
Teknologia Mikroelektronikoaren Institutua	Instituto de Tecnología Microelectrónica	Institutua

Toxikologia	Toxicología	Jakintza-arloa
Traumatologia eta Ortopedia	Traumatología y Ortopedia	Jakintza-arloa
Urologia	Urología	Jakintza-arloa
"Valentin de Foronda" Gizarte Historiaren Unibertsitate Institutua	Instituto Universitario de Historia Social "Valentín de Foronda"	Institutua
Zelulen Biologia	Biología Celular	Jakintza-arloa
Zelulen Biologia eta Histologia	Biología Celular e Histología	Saila
Zientzia Esperimentalen Didaktika	Didáctica de las Ciencias Experimentales	Jakintza-arloa
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	Facultad de Ciencias y Tecnología	Ikastegia (Fakultatea)
Zientiaren Historia	Historia de la Ciencia	Jakintza-arloa
Zoologia	Zoología	Jakintza-arloa
Zoologia eta Animalia Zelulen Dinamika	Zoología y Dinámica Celular Animal	Saila
Zuzenbide Fakultatea	Facultad de Derecho	Ikastegia (Fakultatea)
Zuzenbide Fakultatearen Leioako Ordezkaritza	Unidad Delegada de la Facultad de Derecho en Leioa	Ikastegia (ordezkaritza)
Zuzenbide Penala	Derecho Penal	Jakintza-arloa
Zuzenbide Prozesala	Derecho Procesal	Jakintza-arloa
Zuzenbide Publikoa	Derecho Público	Saila
Zuzenbide Zibila	Derecho Civil	Jakintza-arloa
Zuzenbide Zibila	Derecho Civil	Saila
Zuzenbidearen eta Erakundearen Historia	Historia del Derecho y de las Instituciones	Jakintza-arloa
Zuzenbidearen Filosofia	Filosofía del Derecho	Jakintza-arloa